



Arartekoaren 2018S-325-17 Ebazpena, 2018ko abenduaren 17koa. Horren bidez, Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailari iradokitzen zaio diru-sarrerak bermatzeko errenta eta etxebizitzarako prestazio osagarria aldi batez etetea erabaki duen ebazpena berrikus dezala, zalantza objektiboak baitaude titularren konkurrentziaren inguruan.

Aurrekariak

Arartekoak esku har dezala eskatu du herritar batek, ez dagoelako ados Lanbidek hartutako erabakiarekin. Horren bidez, aldi batez eten zitzaizkion diru-sarrerak bermatzeko errenta eta etxebizitzarako prestazio osagarria.

Kexagileak helbide aldaketa jakinarazi zion Lanbideri, diru-sarrerak bermatzeko errenta arautzeko maiatzaren 25eko 147/2010 Dekretuko 12. artikuluan ezarritako betebeharra betez.

Etxebizitza horretan, une honetan beste pertsona bat bizi zen, hori ere diru-sarrerak bermatzeko errentaren eta etxebizitzarako prestazio osagarriaren hartzailea, eta diru-sarrerak bermatzeko errenta/etxebizitzarako prestazio osagarriaren titularra zen beste pertsona bat bizi zen hura iritsi baino lehen. Jakinarazpen horrekin batera, dokumentazio osagarria aurkeztu zuen, xehetasun handiagoarekin: gelaren azpierrementamenduko alokairuaren kontratua, fidantzaren ordainagiria, helbide berriko erroldatze-ziurtagiriaren kopia eta Arrigorriagako Udalaren erroldan baja emateko eskaeraren kopia, hura heldu arte etxean bizi izan zen beste pertsonari zegokiona; baja hori 2016ko abuztuaren 30ean egin zen.

Hala eta guztiz ere, 2016ko abenduaren 1ean, Lanbideren jakinarazpena jaso zuen kexagileak (2016/REV/113416), ondoren aipatuko diren beharkizunak edota betebeharrak bete ez direla ikusi izanaren berri emateko:

-“Etxebizitza edo bizileku berean bi bizikidetza-unitate edo gehiago bizi badira, etxebizitza edo bizileku horretan gehienez ere diru-sarrerak bermatzeko errentako bi prestazio eman ahal izango dira ”. Jakinarazpenaren aurrean, kexagileak alegazioak aurkeztu zituen 2016ko abenduaren 28an, eta horrekin batera, aurretiazko helbide aldaketarekin batera aurkeztua zuen dokumentazio bera erantsi zuen, Lanbideren 2016/3945500 zk.ko ziurtagiriak egiaztatzen duenez.

Lanbidek ezetsi egin zituen alegazioak, eta diru-sarrerak bermatzeko errentarako eskubidea aldi batez etetea erabaki zuen. Honatx zioa: *“Eskaera egindako egunean, diru-sarrerak bermatzeko errenta onartuta duten 2 bizikidetza-unitate bizi dira.”*

Kexagileak aldi baterako etete horrekin bat ez zetorrela agertu zuen Lanbiden, 2017ko otsailaren 20ko aukerako berraztertze errekurtsoa aurkeztuta





(frogagiriaren zk.: 2017/57870). Horren bidez jakinarazi zenez, udaltzainak etxean agertu ziren pertsona kopurua eta bertan bizi ziren pertsonen nortasuna egiaztatu ahal izateko.

Kexagileak gehitu duenez, bere ustez, helbide aldaketa Lanbideri jakinarazi baino lehen egiaztatu zuen etxebizitzak bete egiten zituela bertan bizitzeko beharkizunak, betiere prestazioen titularrak agertzeari buruzko diru-sarrerak bermatzeko errenta eraentzen duen araudiaren arabera.

Arartekoak, kexa izapidera onartu ondoren, laguntza eskatu zion Lanbideri arestian aipaturiko gertaeren inguruan, eta aurretiazko zenbait gogoeta egin zituen, baina berriz ez errepikatzeko, geroago emango dira.

Laguntzeko eskaerari erantzunez, Lanbideko zuzendari nagusiak txostena igorri zion Arartekoari. Hauxe jakinarazi zuen txostenean:

"Lanbidek Diru-sarrerak Bermatzeko Errenta eta Etxebizitzarako Prestazio Osagarria jasotzeko eskubidea eten du aldi baterako, honako arrazoi hauek direla medio:

Espedientea izapidetzean ikusi dugu, Arrigorriagako erroldan izena emateko agirian jasotako informazioak dioenez, zure egoitzan Diru-sarrerak Bermatzeko Errenta onartua duten 2 bizikidetz-unitate daudela. EPO jasotzeko eskubidea eten egiten da DSBE eteten den unean, bigarrenaren osagarria baita lehena.

Maiatzaren 25eko 147/2010 Dekretuaren 10.2 artikuluari jarraikiz, etxebizitza berean bi DSBE badaude onartuta, etxebizitzan sartu den azken pertsonari eten egiten zaio kautela-neurri gisa. Aipatutako espedientean, kautelazko etetea aman zen unean, erroldako baja ez zegoen baieztatuta, eta hori ezinbesteko baldintza da dekretuko artikulua betetzen direla bermatzeko."

Lanbidek, ondorio gisa, honako hau jakinarazi zion erakunde honi:

"Hortaz, interesdunak berriz prestazioa kobratzen hasteko eskaera egin ahal izango du; horretarako, behin etxebizitza horretan prestazio jasotzeko eskubidea onartuta zuten bizikidetz-unitateetako batek erroldan baja ofiziala egindakoan, eskaera-orria izena emateko agiria aurkeztu beharko ditu."

Hortaz, beharrezko zuzenbideko oinarriak eta gertaera badirela iritzita, honako hauek eman dira:

Gogoetak



1. Diru-sarrerak bermatzeko errentaren eta etxebizitzarako prestazio osagarriaren hartzaileek bete egin behar dituzte diru-sarrerak bermatzeko errentari buruzko maiatzaren 25eko 147/2010 Dekretuko 12. artikuluan ezarritako betebeharrak (147/2010¹ Dekretua), besteak beste, g) idatz-zatian xedaturikoak: *“Titularren ohiko bizilekuari buruzko edozein aldaketa udalari jakinaraztea, hori gertatzen denetik zenbatzen hasi eta hamabost egun naturaleko gehieneko epean, Gizarteratze Hitzarmenean aurreikusi diren berezitasunak, halakorik baleude, bazter utzi gabe”*.

Arartekoaren ustez, kexagileak betebeharrak hori denboran eta forman bete zuten, espedientearen barruan dauden Lanbideren hainbat frogagirik egiaztatzen dutenez.

Bere espedientea berrikustean Lanbidek egiaztatu zuenez, etxebizitza horrek diru-sarrerak bermatzeko errentaren bi titular zeuden eta, horregatik, prestazioa aldi batez etetea erabaki zuen, 147/2010 Dekretuko 10.2. artikuluan ezarritakoa aplikatuz (*“Titularren konkurrentzia”*):

“2.-6.1 artikuluan definitzen den etxebizitza edo bizitoki partikular bat bi bizikidetzaren unitatek edo gehiagok konpartitzen dutenean, etxebizitza edo bizitoki horretan eman daitezkeen Diru-sarrerak bermatzeko errentaren prestazioen gehieneko kopurua bikoiztuz, betiere prestazioa lortzeko baldintzak betetzen badituzte. Horrela gertatuz gero, prestazioa lehendabizi eskatu duenari emango zaio”.

Alabaina, diru-sarrerak bermatzeko errentaren beste titularra, Lanbideko zuzendari nagusiaren txostenean aipatua, ez zen bizi etxebizitzan kexagileak helbide aldaketa jakinarazi zuenean eta, beraz, erroldan bajaran emateko eskaera gehitu zuen dokumentazioaren barruan.

Horrez gain, erroldan bajaran emateko espediente hori izapidetzean, bi aldiz joan ziren udaltzainak etxebizitzara, kexagileak jakinarazi zuenez.

Ildo horretan, Lanbidek Poliziari eskatu ohi dion laguntzaz ohartarazi nahi du Arartekoak, hain zuzen ere etxebizitzan benetan bizitzea egiaztatzeko eskatua. Oro har, baldin eta baimendutako funtzionarioak egiaztatzen badu pertsona ez dela etxebizitzan bizi, eten egin behar du diru-sarrerak bermatzeko errentarako eskubidea edo, hala denean azkeneko, Herri Administrazioetako Administrazio Prozedura Erkideari buruzko Legearen 77.5. artikulua aplikatuz. Hauxe ezarri da artikulu horretan: *“egitateen frogatzat hartuko dira, kontrakoa egiaztatzen ez bada, agintari-kondizioa aitortzen zaien funtzionarioek formalizaturik dauden eta, dagozkien legezko eta betekizunak gorderik, haiek egiaztatutako egitateak jasotzen dituzten dokumentuak”*.

¹ Maiatzaren 25eko 147/2010 Dekretuak abenduaren 23ko 18/2008 Legea garatu du, eta azken hori azaroaren 24ko Legearen bidez aldatu. Hala ere, orain arte ez da horren arau-garapenik izan.

Espediente honetan, kexagileak Lanbideri emandako informazioak ez zuen ondoriorik izan, hots, udaltzainak bi aldiz joan ziren etxebizitzara. Lanbidek, informazio horren berri izan ondoren, ez zuen baliatu urriaren 1eko 39/2015 Legearen 79. artikuluan ezarritako eskumena, ebazpena emateko beharrezkotzat jotzen diren txostenak ematea ahalbidetzen duena, funtzionario batek esku hartu zuela jakin bazuen ere.

Horrenbestez, hauxe da kontua: erroldan baja emateko espedientea bukatu arte nahitaez itxaron behar ote den argitzea. Izan ere, horrek berekin dakar legezko zenbait formalitate betetzea, zehazki, Tokiko Erakundeetako Biztanleriaren eta Lurralde Mugapenaren Erregelamendua onetsi duen uztailaren 11ko 1690/1986 Errege Dekretuko 72. artikuluan ezarritako izapideak egitea.

2. Etxebizitza batean gehienez eman daitekeen diru-sarrerak bermatzeko errentaren prestazio kopurua ezarri du araudiak, baina ez du ezer xedatu ebazpen honen ustezko xedearen inguruan, non **bi titularretako batek ez duen egiaztatu udal erroldan inskribaturiko etxebizitza berean benetan bizi izateko beharkizuna.**

Neurriz kanpokoa dela ematen du beste titular bat erroldako baja egiaztatzea exijitzeak noiz-eta Lanbidek, etxebizitzan benetan bizitzea egiaztatu ez dela-eta, beste titular baten diru-sarrerak bermatzeko errentaren espedientea azkentzea eskatzeko modua izan duenean. Kontuan hartu behar da ezen, Lanbidek aplikatzen dituen irizpideen arabera, erroldatzearen eta etxebizitzan benetan bizitzearen artean dagoen inkongruentziak berekin ekarriko duela prestazioa ukatzea edo azkentzea, beharkizunak betetzen direla egiaztatzerik ez dagoelako. Horrez gain, kasu horietan azkentzearen ondorioez ezarritakoa izan behar da aintzat. Lanbidek interpretatzen duenez, etxebizitzan benetan bizitzea egiaztatzen ez duen pertsona ez da etxebizitza horretan bizi **erroldan baja emateko prozedura hasten den egunetik hasita.**

Izan ere, Lanbidek (2017ko maiatzean) 2.2. epigrafean ezarritako irizpideak² aplikatzean, hauxe ezarri da errolda eta etxebizitzan benetan bizitzea bat ez etortzearen inguruan: ***“Erroldak beti adierazi beharko du etxebizitzaren egoera erreala. Horrenbestez, etxebizitzan benetan bizi diren pertsona guztiek erroldan erregistratuta egon behar dute eta, halaber, etxebizitzan bizi ez den inork ere ezin du egon etxebizitza horretan erroldatuta.***

Horrez gainera, errentamendu- edo azpierrementu-kontratuen titular guztiek etxebizitza horretan erroldatuta egon behar dute eta etxebizitza horrek izan behar du haien benetako bizitokia. Horri dagokionez, ez da onargarria erroldan ageri ez den edo etxebizitzan bizi ez den pertsonaren bat errentamendu-kontratuan agertzea.

2

http://www.lanbide.euskadi.eus/contenidos/informacion/rgi_criterios/eu_def/adjuntos/Irizpid_eak_DBE%20maiatza%202017.pdf

Kontuan hartu behar da arestian aipatutako muturrak ezinbestekoak direla EAEn erroldatuta egoteko eta EAEn benetan bizitzeko baldintza betetzen dela frogatzeko ez ezik, bizikidetzaren osatzeko baldintza betetzen dela frogatzeko ere bai, bizikideen ezkon-ahaidetasunaren eta odol-ahaidetasunaren maila egiaztatu behar baitira (147/2010 Dekretuaren 5.1.b artikulua), baita errentamendu-kontratua ote duten egiaztatu ere (147/2010 Dekretuaren 5.1.c artikulua). 14

Horregatik guztiagatik, erroldaren eta benetako bizitokiaren artean inkongruentziaren bat badago, prestazioa ukatu edo iraungiko da, arestian adierazitako baldintzak frogatuta ez geratzeagatik.

Etxebizitzako bizikideek eskatu beharko dute etxebizitzan bizi ez diren pertsonen baja erroldan. Kasu batzuetan, erroldako bajak zenbait hilabete behar izaten du ondorenak izateko (ofizioz edo interesdunek eskatutako baja, eta abar); horregatik, erroldako bajari hasiera eman zaiola frogatzeko egiaztagiria aurkeztu beharko du interesdunak.

Lanbide jakiten badu DSBEn jasotzaile batek baja hartu duela erroldatik, iritziko du interesduna ez dela bizi etxebizitzan baja-prozedurari hasiera eman zitzaien egunaz geroztik”.

Ez da zuzena erroldaren eta etxebizitzan benetan bizitzearen artean dagoen inkongruentzia hori diru-sarrerak bermatzeko errentaren titularra izateko beharkizunak betetzen direla egiaztatzean, ezta diru-sarrerak bermatzeko errentarako eskubidea azkentzearen ondorioen data erroldan baja emateko prozeduraren hasierako eguna izatea ere. **Titularren konkurrentzian, berriz, erroldan baja ematea lortu arte itxaron beharra dago diru-sarrerak bermatzeko errenta berriz ere kobratzen hasteko.**

Erakunde honi igorritako erantzunean, Lanbidek ez du jakinarazi bigarren titularrak diru-sarrerak bermatzeko errentarako eskubidea azkenduta duen ala ez. Baina inguruabar horietan aurreikus zitekeen bezala eta arestian ikusi denez, egungo irizpideak baliatuz, aipaturiko inkongruentziaren gaineko zantzia izanda, antzinatean handiena zuen bigarren titularrak diru-sarrerak bermatzeko errentarako zuen eskubidea azkendu beharko zen, eta, beraz, **araudia bete egingo zen, zeren eta etxebizitza berean diru-sarrerak bermatzeko errentaren bi prestazio baino ez baitzeuden.**

3. Erakunde honen iritziz, esan daiteke defentsarik eza gertatu dela, prestazioa eten egin baita etxebizitzan bakarrik diru-sarrerak bermatzeko errentaren titular bat bizi denean. Etxebizitza alokatu duen eta diru-sarrerak bermatzeko errentaren titularra den pertsona berriak ez du aukerarik jakiteko ea beste titularren bat dagoen, edo alta emanda dagoen aurreko egoiliarra beste etxebizitza batean, edo erroldan baja ematearen izapidearen iraupena zein den, edo are gehiago, ea erroldan izena emateko baja izapidetzean Lanbidek ebatzi duen bigarren antzinatean handiena duen eta etxebizitzan bizi den bigarren titularraren diru-sarrerak bermatzeko errentarako eskubidea azkentzea.



Arartekoaren ustez, eragina izan beharko luke diru-sarrerak bermatzeko errentaren espedientean bigarren titularraren erroldan antzinatasunaren arabera baja aurkeztu izana egiaztatzeak, baita titular hori etxebizitzan bizi ez dela udaltzaingoaren txostenaren bidez agerrarazteak ere. Erakunde honek beste batzuetan ere adierazi izan duenez, bizikidetzaren unitate kanpoko beste pertsona baten jokabideak ez lituzke kalte behar betebeharrak epearen barruan bete dituen beste bizikidetzaren unitatearen interesak.

4. Horregatik, erakunde honek gogoeta bultzatu nahi du tratamendu desberdinaren eta aurreko desorekaren inguruan, eta hauxe proposatu nahi du: diru-sarrerak bermatzeko errenta/etxebizitzarako prestazio osagarriko eskubideen etetea berrikus dadila, eteteko kausarik ez egotearen gaineko nahikoa zantzu daudelako.

Proposamen hori bat dator Diru-sarrerak Bermatzeari eta Gizarteratzeari buruzko abenduaren 23ko 18/2008 Legearen 17.2. artikuluan ezarritako egungo araudi aplikagarriarekin, hau da, titulartasuna eskuratu ahal izatea baldin eta etxebizitza berean hainbat bizikidetzaren unitate badaude eta horien artean ahaidetasunik ez badago, betiere etxebizitza edo etxe berean gehienez jaso daitekeen diru-laguntza kopuruen inguruan arauetan zehazturiko mugak izanik. Lege hori garatzen duen 147/2010 Dekretuko 10.2. artikuluan, gehienez bi prestazio eskuratu ahal izatea ezarri da, baina baldintza bakarrarekin: prestazioa eskuratzeko beharkizunak betetzea. diru-sarrerak bermatzeko errenta prestazioa eskuratzeko baldintzak betetzen zituzten bi bizikidetzaren unitate baizik ez zeuden eta, beraz, bete egiten da legez xedaturiko arestiko aurreikuspena.

Ez dakigu Lanbideak bigarren titularrari antzinatasunaren arabera azkendu dion diru-sarrerak bermatzeko errenta prestazioa, baina Arartekoaren ustez, **bi titular etxebizitzan bizi ez direla erabakitze nahikoa garrantzitsutzat jo beharko lirateke** erroldan baja emateko eskaera aurkeztu dela egiaztatzea eta udaltzaingoaren txostena egotearen berri izatea.

Horrenbestez, erakunde hau sortu eta arautzeko otsailaren 27ko 3/1985 Legearen 11.b) artikuluan arauturikoarekin bat etorritik, hauxe jakinarazten zaio Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailari:

IRADOKIZUNA

Arartekoak Lanbideri iradokitzen dio diru-sarrerak bermatzeko errenta eta etxebizitzarako prestazio osagarria aldi batez eteteko ebazpena berrikus dezala, zalantza objektiboak baitaude titularren konkurrentzia gertatu izanaren inguruan.

